

Mendiaren aurpegi alaia

Ramon Olasagasti



Felix Inurategi
Gasherbrum II (8035 m)

ARGAZKIA: INURATEGIARI ANAIARIK (S. PIRENAIKO)

IRRIFARRAK beti du ondoan mal-koa, egutera ospela, pozak sufrimendua, ahalak ezina, egunak gaua, alaitasunak tristura eta bizitzak heriotza. Edo alderantziz: tristurak poza, ospelak egutera, malakoak irrifarrea. Nahitaez loturik eta eskutik doaz. Felixek ere ondoan zuen beti Alberto, eta Albertok Felix. Orain, nekeza zaigu bata bestea gabe imajinatzea. Felixen faltan, egunik gabeko gauak bizi ditu Aretxabaletak, ospelean dago Inurategi Inurategiaren etxaldea, malkotan euskal mendizaletasuna.

MENDIAREN bi aurpegiak ere ezagunak zaizkigu: ederra bata, egunsenti gorri eta soineko zuriz jantzia, Inurategitarren diaporametan ikustera ohituak gauden aurpegi polita. Bestea, aurpegi samina, zorigaitzaren oskolpetik tarteka burua agertzen duen heriotz anderea, jelskor, gure mendizaletasunari irrifarrea ohostu nahi dion andere misterio-tsua. Albertok eta Felixek, momenturik gogorrenetan ere, beti erakutsi izan digute mendiaren aurpegi gozoa eta ederra: K-2n adibidez, 1994an, Juanito Oiarzabal, Kike de Pablo eta Juan Tomasekin batera Cesen bideetik tontorreraino iritsi zirenean, Chogoriren aurpegi amoltsua erakutsi ziguten bi anaiek. Handik lasterrera, ordea, aurpegi goibela: Atxo Apellaniz K-2ko ipar ertzean betiko itzali zenekoa. Pozaren ondotik tristura.

ALDERANTZIZ izan zen Shisha Pangman: lehenbizi, Himalaya menderagaitzak hatzaparkada gaixto bat eman zuen, gazteagoa zelarik, ertz zorrotz eta hormarik ederrenak menderatu zituen ameslari hura bere altzoan hartuz. Agur eta ohore Zulu. Albertok berak gertu sentitu zuen elurjasiaren lastana, baina andere misterio-tsua Zulu nahi zuen. Istripuaren ondotik, Felixek, Albertok eta Josu Bereziartuak mendiaren beste aurpegiak erakutsi ziguten, gailurreko besarkada zintzoz arnasberritu nahirik egun batzuk lehenago galdutako lagunaren oroimena. Britaniarren bidetik, alpinoan, arin eta azkar egin zuten igoera, Zuluren irrifarrea harrotuz. "Zorionak mutilok!". Malkoaren ondotik irrifarrea.

MENDIAREN beste aurpegiak, sufrimenduarena, Juanito Oiarzabalena Kangchenjungako tontorretik behera. Kang handiak hustuak zizkion barrenak Juanitori, begiak itzaliak eta ezpainetako lerdarekin batera baziohoakion bizia ere. Baina Kangchenjunga iparrean, inork inoiz izan duen bizkarzain leialenak baino leialago, mendiaren aurpegi ederra erakutsi zuten beste behin Felixek eta Albertok, indarrarena eta laguntasunarena. Hitz gozorik gabe, gordin-gordin, "uztak pakean andere hori eta

ator gurekin, dedio!", oihukatu bide zioten Oiarzabali. Sufrimenduaren ondotik poza.

EUSKAL mendizaletasunaren aurpegiak, zortzimilako hutsez eta bide normalez zimurtua, dotoretzen ere ibili izan dira Felix eta Alberto, Broad Peaken adibidez. Mendiaren hego-mendebaldeko ertzetik, Euskadi izena hartu behar zuen hartatik egindako ahalegina ez da berehalakoan ahaztuko. Sasoi hartan Konkordiatik zebilen Reinhold Messnerrek, ertzaren zailtasuna eta edertasuna ikusirik, honela galdetu omen zuen: "Nortzuk dira bi mendizale horiek?". Ezina onartu zuten "egunsenti zoragarri eta triste hura" ere ez dute ahaztuko Felixek eta Albertok. Ertz hartan egindako saioaren ondotik bi egunetan igo ziren gailurrera bide normaletik. Ezinaren ondoren ahala.

HAMABI zortzimilako, hamabi egunsenti gorri Kurtzebarriko hegietatik eta hamabi itxafero Aretxabaletako zeruan. "Igo dituk!". Gailurrez gailur landutako sonak, herriz herriz hitzez eta egitez irabazitako bihotzak, dedikazioz eta gogoz zabalduko bideak, euskal mendizaletasunaren irudi bihurtu zituen Inurategi anaiek. Mendiaren aurpegi ederra, herriak beti maiteko duen aurpegi. Martin Zabaletak 80an Everest igo zuenetik, jendeak ez zituen hain bere sentitzen Himalayako igoerak. Gure Himalaya liburuan ageri den mendia nahi genuke beti, zuen Himalaya bestelakoa baita: profesionaltasunaren arloan bidea egin duena, igoera azkar, arin, indartsu eta ederrez osatua, nepaldar zein baltiar emakumeen aurpegietan herri haietako bizimodua erretratatu eta erakutsi izan diguna.

UZTAILAREN 28ko egunsentia ere eder esnatu zen. Gailurra, goizeko 7:00etako albistegietatik berria etxeetara, inoiz baino goizago. Gasherbrum II, hamabigarren itxaferoa. "Igo dituk!". Arratseko lehen orduan, ordea, Albertoren ahots urratuak pitzatu egin zuen herri oso bat eta Euskal Herriko mendizale arima artesis betetako glaziar izoztua bihurtu zuen. Malkoa, ospela, sufrimendua, ezina, gaua, tristura, heriotza. Himalaya samina, mendiaren aurpegi tristea. Glaziarreko artesiak ez dira inoiz erabat itxiko, baina zorionez Felix ondoan izan gabe ere Albertok badu sokalagunik bere bizitzako eskaladatik gogorrenean, Aretxabaleta ari da ospeletik egutera epelera igarotzen, eta euskal mendizaletasunaren zauria ere ari da orbantzen. Geroan, gainera, oroimena taupadek Felixen irrifarrea biziaraziko digute, mendiaren aurpegi alaia. Bizitzak indar handiagoa baitu beti. □

ARGAZKIA: JOSU BEREZIARTUA (S. PIRENAIKO)